

UDAL BATZARRARI

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak atxikitako proposamenak egiten ditu ordenantza fiskalak aldatzeko.

Eibarren, 2022eko irailaren 13an

Josu Mendicute Rodriguez

Bozeramailea

1.- Hiri-hondakin bilketaren zerbitzuari dagokion guztian Tributuak ezartzeko ahala "Debabarrena" Eskualdeko Mankomunitatearen esku uzteko erabakia atzera botatzea.

Akordio proposamenak:

Aurrena: Mankomunitateak kudeatutzeari utziko dio Eibarko udalerriri dagokion hiri-hondakinen tasaren diru-bilketa 2023. ekitaldirako.

Bigarrena: Eibarko Udalak 2023 ekitaldirako onartzen du Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen "Eibarko Udalerrian Hiri-Hondakinak Bildu Eta Tratatzeako Zerbitzuak Egiteagatiko Tasak Arautzen Dituen Ordenantza Fiskalaren 2022ko Ekitaldia" ordenantza fiskala (ATXIKITAKO DOKUMENTUA 1).

Hirugarrena: Eibarko Udalak azterketa bat egingo du 2024ko ekitaldira begira tasa hori egokitzeke.

Arrazoiak

Eibarko hirian, bi mila eta hamalauko otsailaren hogeita lauan, arratsaldeko zazpiak eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen ohiko bileran, Udaletxeko Batzar Aretoan. Bilkura hartan, ondorengo hau onartu zen: "Tributuak ezartzeko ahala "Debabarrena" Eskualdeko Mankomunitatearen esku uztea hiri-hondakin bilketaren zerbitzuari dagokion guztian".

"Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak, hiri-hondakin bilketaren zerbitzu publikoa eskaintzeagatik, tasak onartzeko eta horren diru-bilketa egiteko ahala du, hain zuzen ere, duela zortzi urte, eskualde honetako udalek egiten zuten lana, eta Eibar izan ezik, gainontzeko udalek jarraitu dutena.

Hala da: tasak onartzeko eta biltzeko gaitasun hori Mankomunitateak jasota dauka bere Estatutuetan (15.c eta 88. artikuluetan), baina gaitasun hori Eibarko Udalak baino ez dio utzi. Horrek egoera nahasia eragin du, izan ere, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Batzar Orokorrak, non bailarako udalerri guztiek parte hartzen baituten, onartzen ditu Eibarko tasak (soilik Eibarkoak).

Duela zortzi urteko erabakitik hona, eskualdeko gainontzeko udalek ez dute erabaki hori hartu eta, beraz, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak ez ditu udalerrietan tributuoak ezartzen, salbu eta Eibarren. Eibarko Udalaren asmoa zen zerbitzu mankomunatu integralerantz jotzea, baina hori ez da eman, gainontzeko udalek bere tributuo propioak ezartzen jarraitzen dutelarik.

Tasaren kudeaketa, beraz, hiri-hondakin bilketako zerbitzu publikoari berezkoa zaion zati bat da soilik Eibarren. Eibarko udalari eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari duela zortzi urte irizten zitzaiena zen bidezkoa zela mankomunitatea bera izatea -bere estatutuek ematen dizkioten ahalmenez baliatuta- hondakin bilketako zerbitzu publikoa eskaintzeagatik tasa onartu, kudeatu eta kobratuko zuena. Baina horrek ekarri du beste udaletako ordezkariak Eibarko tasa erabakitzea, eta ostera, Eibarko udal talde politikoek horren inguruko eskuhartzerik ez izateko aukera. Eskumena berreskuratzeak aukera emango du herritarrek zerbitzuagatik zenbat ordaindu behar duten erabakitzeko, indarrean dauden arauen arabera.

Proposamen honek ez dauka inolako eraginik herritarrengan. Eraginik izatekotan, behin eskumena berreskuratuta, Udal Batzarrak propio har ditzakeen aldaketa-akordioetan egongo da. Ezarritako tasa kostuen arabera da, eta 2022ko zifretan izoztea bat dator Alkatetzatik egindako gainontzeko proposamenekin, eta horiek balioztatzeko arrazoiak baliatu ditzake Udalak beste hauek ere izozteko.

Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak Udal Batzarrari proposatzen dio 2014ko otsailaren 24ko akordioaren aurreko egoerara itzultzea eta, horretarako, akordio hauei teknikoki egin liezazkien aldaketa edo egokitzapenak onartuz, proposatutako akordio proposamenak onartzea.

2.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.

KIROL PATRONATOA

Akordio proposamenak:

Aurrena. "ABONATUEN ESKUBIDEAK" atalaren amaieran ondorengo hau gehitzea:

"Erabiltzaileek eskubidea izango dute urteroko tasa lau zatitan ordaintzeko, hiruhilekotan banatuta.

Erabiltzaileek eskubidea izango dute, beren ardurari egotzi ezin dakizkien arrazoiak tarteko ezin badute zerbitzua erabili, ordaindutako tasa itzultzeko.

Erabiltzaileek dituzten eskubide hauek aplikagarriak izango dira, baita ere, zerbitzua kanpoko enpresa batek eskaintzen duenean."

Bigarrena. Udalak SPA zerbitzuaren kudeaketa berreskuratuko du.

Arrazoiak:

Arauaren arabera, tasa sortzen da zerbitzua edo jarduera egiten denean. Hala ere, erabiltzaileen kexak jaso ditugu zenbait zerbitzu eskaini gabe ez zaielako tasa itzuli. Gainera, familia askorentzat ahalegin ekonomiko handia da tasa osoari ordainketa bakarrean aurre egitea eta, beraz, hiruhilero ordaintzeko aukera proposatzen da. Ez du eraginik Udalaren diru-sarreretan, eta ez du kaltetzen herritarren eskubiderik, beraz arrazoizko proposamena da.

SAN ANDRES FUNDAZIOA. NAGUSIEN EGOITZA

Akordio proposamena:

Atala ezabatzea.

Arrazoiak:

Egoitza ez dago Udalaren esku eta, beraz, ez dago arrazoituta ordenantza fiskaletan mantentzea.

3.- IMP elkarteak Ipuruako Merkatu Plaza erabiltzeko salbuespena.

Akordio proposamena:

Konponbide bat ematea IMP Elkarteak abian jar dezan Ipuruako Merkatu Plazako proiektu soziokulturala, Udalak ere bultzatu nahi duena, eraikina erabiltzeko kosturik gabe.